

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Prometeo berriaren automata zaharrak

GRENOBLE (FRANTZIA), 1709ko otsailaren 24a. Jacques de Vaucanson jaio zen familia txiro baten baitan. Lehen aldiz amarekin elizara joan zenean, bertako erlojuak txundituta utzi zuen mutikoa. Ordu luzez egon zen erlojuari begira, eta astebete geroago erlojuaren mekanismoa zehaztasun osoz berregitea lortu omen zuen. Semearen dohain harrigarriak ikusita, ama alargunak jesuitengana bidali zuen haurra, hezkuntza egokia jaso zezan.

Handik aurrera, gaztearen ametsa bizi artifiziala sortzea izan zen. Gaixorik zegoen batean, sukarrak jota, bere lehen proiektua bururatu zitzaion: musikari artifiziala sortuko zuen. Hortaz, ia gorputz atal guztiak mugitzeko gai zen txirularia egin zuen. Gainera, hilabeteak eman zituen giza azalaren antza izango zuen materialaren bila. 1738ko otsailaren 11n erakutsi zuen smakizuna eta erantzun ezin hobea jaso zuen. “Arima ematea besterik ez zitzaion falta” eta antzekoak bota zituzten “mirariaren” lekukoek. Voltairek berak “Prometeo berria” ezizena ipini zion asmatzaileari. Ospeaz gain, lehen aurkezpen hark lanean jarraitzeko behar zuen babes ekonomikoa eman zion. Musikariaren azken bertsioa hamabi melodia jotzeko gai zen.

Baina Vaucansonen smakizunik ezagunena urtebete geroago, 1739an, aurkeztutako ahate automata izan zen. Benetako ahateak bezala mugitzeaz gain, digestio-sistema artifiziala eman zion Vaucansonek: arto-aleak jan, digestioa egin eta gorotza irazituko gai zen. Luis XV.a erregeari ahatearen bertsiorik garatuen eraku-

tsi zion: begiak kliskatzen zituen, eta mokoarekin lumak orrazten zekien, benetako hegaztiekin bezala. Erregeak, txundituta, miraria azaltzeko eskatu zion jenoari, eta hura gihar artifizialen, digestio-hodien eta erreazio kimikoen sistema korapilatsuz jardun zen luzaz.

Baina berehala, Frantziako meatzarien grebak asmatzailearen gainbehera ekarriko zuen. Agintariek meatzari artifizialak egitera behartu zuten Vaucanson eta, automaten aurkako sabotaje ekintza batean hainbat langile hil zirenean, errua berari egotzi zioten. Erbestera joan zen ihesi, eta bidean seme-alaba artifizial guztiak galdu zituen.

Mende erdi geroago, Goethe bera saiatu zen Vaucansonen lanak berreskuratzen, baina aurkitutako ale bakanak suntsituta topatu zituen. Ondoren, hainbat plano eta marrazkitatik abiatuta, 1739an aurkeztutako lehen ahatearen erreplika egin zuten –Luis XV.ak ikusitako bertsio osoagoaren planorik ez da gorde–. Gaur egun, ordenagailu eta Internet izeneko smakizunak eskura dituztenek ondorengo helbidean ikus dezakete erreplikaren funtzionamendua: <http://www.youtube.com/watch?v=biXIZCL87to>.

1782ko Paris iskanbilatsuan hil zen Vaucanson, ospea erabat galduta. Bizi zen artean inork ez zion jaramonik egin, adibidez, ehungailuak automatizatzeko garatutako ideari. Urte batzuk geroago Joseph Marie Jacquard-ek heldu zion Vaucansonen hariari. Jacquard ehungailu ezagunaren sortzaile moduan sartu zen historian, eta Vaucansonek, berriz, tartetxo bat baizik ez du lortu bitxikerien historia txikian, kaka egiten duen ahate automataren asmatzaile modura. ■



Goian aita, Jacques de Vaucanson. Behean kumea, ia denetik egin zezakeen ahate automata.

ARRASTOAK

LEHEN idazkera Sumer-eko kulturaren sortu zela ikasi genuen, baina Yussef Majidzadegh arkeologoa buru duen taldearen hipotesiaren arabera, Arattako erresuman sortu ziren lehen idazkiak. Sumeriar testu batek Aratta aipatzen du, baina ez zen haren arrastorik ezagutu Jiroft-en (Iran), aztarnategi oparoa topatu zuten arte. Aurkitutako objektuek K.a. 3400. urtean oso zibilizazio garatua bizi zela diote. Arrasto garrantzitsuenak izkribuak dituzten hiru harrizko taula dira, baina adituek ez dute oraindik zeinu horiek ulertzea lortu.

Orain arte, idazkera K.a. 3200. urtean sortu zela uste zen eta, Majidzadegh-en hipotesia baieztatuz gero, 200 urte erantsiko zaizkio lehen idatzari. Baina horretarako ikerketak hainbat oztupo gaintu beharko ditu. Besteak beste, Mendebaldeko museoen lotsagabekeria. Izan ere, 2001ean aztarnategiaren berri eman zuten komunikabideek eta handik aurrera, urtebetez, lapurreta basatia jasan zuen Jiroft. Orduetik, Irango gobernuak funtsezko bost ale itzultzeko eskatzen dio Parisko Louvre orojaleari.



Jirofteko aztarnategia.